


Iñaki Gracenea,
***Izenik gabe/Sin título***
2003-04




Komisarioa/Comisariado: Daniel Castillejo
Koordinazioa/Coordinación: Bilduma Iraunkorraren eta Analisi Artististikoen Saila/ Dpto. Colección Permanente y Análisis Artísticos
Dokumentazioa/Documentación: a mayuscula gestión cultural, S.C.
Argazkia/Fotografía: Gert Voor in´t Holt
Muntaketa/Montaje: Arteka Une eta Gestioa, S.L.
Aseguruak/Seguros: Aón Gil y Carvajal, S.A.
Laguntzailea/Con la colaboración de: Josep Egea

Azaleko irudia / Imagen portada: Gonzalo Puch. *Izenik gabe / Sin título, 2003*



Artium
Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo

**www.artium.org**

Actividad enmarcada en
ProgrAmárica
Barruan sartutako ekintza


Francia, 24 -01002- Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945-209020 / 945-209000 Fax/a: 945-209049 museo@artium.org


**Bisita ordutegia / Horario de visitas:**
11:00etatik - 20:00etara etenik gabe / 11:00h a 20:00h. ininterrumpido.
Ostiral eta larunbatetan, 20:30 arte / Viernes y sábados hasta las 20:30h.
Jaiegun ez diren astelehenetan itxita / Lunes no festivos cerrado
Txartel-lehiatila, Museoa itxi baino ordu erdi lehenago itxiko da / La taquilla cierra media hora antes del cierre del Museo.
**Liburutegi eta Dokumentazio Zentroa / Biblioteca y Centro de Documentación**
Ikus ordutegiak / Consultar horarios: Tel.: 945-209020, www.artium.org

**Tarifak / Tarifas:**
1 Normala / Normal: 4,5 €
2 Taldeak / Grupos: 4 € (15 lagunetik gorako taldeentzat/aplicable a partir de 15 personas).
3 Bisitaldi gidatuak (taldeak) / Visitas con guía (grupo): 73 €
4 Doakoa / Gratuita ( Kide Elkartuentzat, babes erakundeentzat eta 14 urtez beherakoentzat / Miembros Asociados, entidades de patrocinio y menores de 14 años).
5 "Asteazkenetan, ZUK NAHI DUZUNA" / "Los Miércoles TU DECIDES": mínimo € 0,01 gutxienez
6 Murriztua / Reducida: 2,2 € (ikasleentzat, 14 urtez gorako eta 18 urtez beherako gazteentzat, 65 urtez gorakoentzat eta/edo jubilatuentzat eta langabetuentzat / aplicable a estudiantes, jóvenes mayores de 14 años y menores de 18 años, mayores de 65 años y/o jubilados y desempleados).

**Kafetegia, Denda / Cafetería, Tienda**
**Aparkaleku publikoa / Parking público**
**Bisitaldi gidatuen zerbitzua / Servicio de visitas guiadas:** 945 20 90 10

# ESKURATU BERRIAK
# ADQUISICIONES RECIENTES

Azaroaren 9tik 2007ko otsailaren 18ra
Del 9 de noviembre al 18 de febrero de 2007

Artium
Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo

Urtez urte sorkuntza artistiko garaikidearen bilakaera modu leial eta zuzenean lekukotuko duen bilduma sendoa egiteko museoko bildumaren funtsak zabaltzeko konpromisoari leial izanez, ARTIUMek *Eskuratu berriak* erakusketaren hirugarren ekinaldia aurkezten du. Horretarako, 2004 eta 2006 urteetan gordailuen (Sáenz de Tejada, Arco, eta abar) erosketen eta emakiden bidez bildumaren parte izatera igaro diren 835 artelanen artean aukera bat egin da.

Orain aurkezten den erakusketa hau lan asko biltzen dituen prozesu bizi eta jarraitu baten icebergaren tontorra besterik ez da, eskuratutako pieza guztien katalogazioa, analisia eta azterketa biltzen dituena. Azterlan horren bidez aukeratu dira erakusketa honetan ikusgai izango diren lanak. Gaur egungo arte berrienaren erreferenteak eta joerak erakustea izan da, batik bat, helburua.

Erakusketan dauden artistek nahiz ohiko euskarriak –margolaritza, marrazkia edota eskultura– nahiz teknika berriagoak –argazkia, bideoa edota instalazioa– erabili dituzte (batzuek eta besteek garrantzi bera dutela), batzuetan formaren inguruko bilaketan eta beste batzuetan mezuan sakontzen duten arrazoibideak eratzeko.

Abstrakzioaren inguruko ikerketak artista batzuengan pizten duen interesaren erakusgarri dira Eduardo Gurber-en *Madrid*, Iñaki Cerrajeria-ren *Pintura Amarilla* edota Manu Muniategiandikoetxearen *Rotchenko Japonesa Blanca*. Juan P. Agirregoikoak, berriz, komikien estetika darabil bere marrazkiak egiteko, eta sarkasmo bortitza gure gizartearen jarrera batzuk kritikatzeko.

Fernando Sánchez Castillok Historiaren arrazoibide monolitikoa desegiten du: zaldizkoaren eskulturak ematen duen monarkiaren erabateko boterearen irudia mila zati eginda gelditu da lurrean sakabanatuta. Begirada kaustiko horren aurrean, beste eskultore batek, Jose M. Guijarrok zurezko pieza zakar eta ia tribal baten indar adierazgarria eskaintzen digu. Beste batzuek, Andrés Ángelek eta Alberto Peralek, esate baterako, gaur egungo eskulturaren bide batzuk eta besteak erakusten dizkigute, batzuetan mugak gainditu eta espazioaren eta hautemate bisualaren muturrak esploratzeko gailu elektriko sofistikatuak erabiliz. Horren adibidea da, esate baterako, Sergio Pregoren *Sunoid*, astiro-astiro mugitzen den lau metroko argi fluoreszentedun beso mekanikoa.

Eguneroko bizitza ideia artistikoen iturri bizia da. Horra, esate baterako, Gonzalo Puch-en natura hil garaikidea, edota Concha Pradak modu sotil eta poetikoan argazkia egiten dien mikroskopio baten lenteak handitutako itxura abstraktuko hauts izpiak. Dudarik gabe, eguneroko errealitateak joko handia ematen die artistei, ez bakarrik objektu ezdeusenez eta sumagaitzenez ohartzeko bakarrik, baita beren kritikaren miran jartzeko ere. Hori gertatzen da, esate baterako, Mateo Matéren *Nacionalismo doméstico* instalazioarekin: kanpoko indarkeria gure eguneroko bizitzaren xehetasun txikienetan nola sartzen den adibide biribila. Esther Partegás-en *Barricadas*-ek kontsumismoaren kulturak gainezka egindako hiriko espazio publikoak esploratzen ditu: gure hirietako egunerokotasunetik ateratako zakar poltsa eta boteak, iragarki-oholak, kutxazain automatikoak edota aulkiak. Etengabe gauza berriak erostera eta zaharrak botatzera bultzatzen gaituen sistema batek hartaraturik erabili eta gero botatzen diren objektuez betetako mundua. Zaborrak dira artista honen lanaren protagonista nagusiak, alienatzen gaituen kontsumismoaren metafora bilakatuak.

Era berean, Santiago Sierra artista polemikoa kapitalismoaren eta globalizazioaren kritika zorrotz horren barruan kokatzen da bere *Línea de 30 cm. tatuada sobre una persona remunerada* lanarekin. Den guztiaren –artea eta artistak barne– merkaturatzeak kezkatzen du Sierra, eta hori adierazteko oso ekintza polemikoak planteatzen ditu, batzuetan bere etika ere zalantzan jarrarazten digutenak.

Marina Nuñez-en *Monstruas* lanak –akats fisikoak dituzten emakume desitxuratuen irudikapenak ispilu bibibiletan– ezezaguna zaiguna irudikatzen dute, gu ez bezalakoa delako beldurra eragiten diguna. Marina Nuñezek emakumeenarekin alderatzen du mamu hauen bazterketa, historian zehar emakumearen gorputza mamu itsusiekin lotu izan baita, bere ustez.

IPARRA ARETOA



Ester Partegàs
***Barricadas (We do things we just decided not to do... always in the process of betraying ourselves)***
2005

# ESKURATU BERRIAK
# ADQUISICIONES RECIENTES



Fernando Sánchez Castillo
***Perspectiva ciudadana (Serie Notas para la educación estética de la burguesía seriea)***
2004

SALA NORTE

Fieles al compromiso de incrementar cada año los fondos del museo para configurar una colección sólida que atestigüe de manera fiel y rigurosa la evolución de la creación artística contemporánea, ARTIUM presenta la tercera versión de la exposición *Adquisiciones recientes*. Para esta cita, se ha llevado a cabo una selección de entre las 835 obras ingresadas en el museo entre los años 2004 y 2006, que han pasado a formar parte de la colección mediante depósitos (Saénz de Tejada, Arco, etc) compras y donaciones.

La exposición que se presenta ahora es tan sólo la punta del iceberg de un activo y continuado proceso de trabajo que engloba la catalogación, así como el análisis y estudio de cada una de las piezas ingresadas, de manera individual, y en relación al conjunto de los fondos. Esta labor investigadora, amén de otros factores, ha determinado la selección final de las piezas elegidas para esta muestra, en la que ha primado el interés por mostrar los distintos referentes y tendencias sobre las que asienta el arte más actual.

Los artistas presentes en la muestra se sirven, sin el predominio de unos frente a otros, de los soportes tradicionales como la pintura, el dibujo o la escultura, o bien de técnicas más recientes como la fotografía, el vídeo o la instalación, para generar discursos que en unos casos se centran en la búsqueda y trabajo en torno a la forma, y en otros en profundizar sobre el mensaje de la obra.

Ejemplos del interés que sigue despertando en algunos artistas la investigación pictórica en torno a la abstracción los encontramos en *Madrid* de Eduardo Gruber, en *Pintura Amarilla* de Iñaki Cerrajería o en *Rotchenko Japonesa Blanca* de Manu Muniategiandikoetexea. Por su parte, los dibujos de Juan P. Agirregoikoa se sirven de la estética del cómic y de un fuerte sarcasmo para criticar ciertas actitudes de nuestra sociedad.

El monolítico discurso de la historia se deconstruye con la pieza de Fernando Sánchez Castillo, en la que la imagen del férreo poder monárquico que transmite una escultura ecuestre queda reducida a pequeños fragmentos rotos y desperdigados por el suelo. Frente a esa mirada cáustica, otro escultor, Jose M. Guijarro, nos enfrenta a la fuerza expresiva de una tosca y casi tribal pieza de madera. Otros, como Andrés Ángel o Alberto Peral, nos muestran los distintos caminos que sigue la escultura actual, que en ocasiones traspasa sus fronteras y se sirve de sofisticados dispositivos eléctricos para explorar los límites del espacio y su percepción visual. Es el caso de *Sunoid*, de Sergio Prego, consistente en un imponente brazo mecánico de cuatro metros de longitud con tubos de luz fluorescente que van moviéndose muy lentamente.

La cotidianeidad se convierte en un intenso generador de ideas artísticas. Es el caso del bodegón contemporáneo de Gonzalo Puch, o de esas partículas de polvo, de apariencia abstracta, aumentadas por la lente de un microscopio que Concha Prada fotografía de manera sutil y poética. Sin duda, la realidad cotidiana da mucho juego a los artistas, no sólo para fijarse en sus objetos más banales e imperceptibles, sino también para ser el punto de mira de sus críticas, como la de Mateo Maté y su instalación *Nacionalismo doméstico*, un perfecto ejemplo de cómo la violencia externa del mundo se cuela constantemente en los pequeños detalles de nuestra vida diaria. *Barricadas* de Esther Partegás explora los espacios públicos urbanos, invadidos por la cultura del consumismo: bolsas y botes de basura, tableros de anuncios, cajeros automáticos o bancos para sentarse, que la artista extrae de la cotidianeidad de nuestras ciudades. Un mundo poblado por objetos de usar y tirar, alentado por un sistema que nos obliga a adquirir constantemente cosas nuevas despreciando las viejas. La basura se transforma en protagonista principal de la obra de esta artista al convertirse en metáfora del consumismo que nos aliena.

El polémico artista Santiago Sierra, con su obra *Línea de 30 cm. tatuada sobre una persona remunerada*, se enmarca dentro de esta crítica mordaz del capitalismo y la globalización. A Sierra le preocupa la mercantilización de todo lo existente, incluidos el arte y los artistas, y no duda en plantear acciones muy polémicas que en ciertos casos nos hacen cuestionar su propia ética.

Las *Monstruas* de Marina Nuñez, representaciones sobre espejos circulares de mujeres deformes afectadas por taras físicas, representan lo desconocido, aquello que tememos porque es diferente a nosotros. Marina Nuñez relaciona la exclusión y la marginación de estas “monstruas” con la de las mujeres, porque opina que a lo largo de la historia la feminidad ha sido asociada al cuerpo monstruoso en numerosas ocasiones.